

Ordiziako Udala

2022ITGB0008

Ordizian, **2022ko apirilaren 28a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **28 de abril de 2022** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

## **BERTARATUAK:**

### **LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

### **BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

Juan Ignacio Alonso Arratibel  
Maitane Alvarez Garziandia  
Jon Ander Caballero Zubelzu  
Iñaki Dubreuil Churruca

ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN  
EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)  
EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)  
PSE-EE (PSOE)

### **BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Bittor Bolinaga Alzelai EAJ/PNV  
Miren Alazne Sukia Galparsoro ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)

### **IDAZKARIA**

Ainhoa Esnaola Zubeldia

## **BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

### **AZTERTUTAKO GAIAK**


### **ASUNTOS TRATADOS**

#### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

#### **ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:**

1. 2022ko martxoaren 10eko ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.
2. 2022ko martxoaren 24ko ohiko bilkurako akta zirriborroa onartzea.
3. 2022ko apirilaren 7ko ohiko bilkurako akta onartzea.
4. Batzar Aretoa digitalizatzeko

1. *Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 10 de marzo de 2022.*
2. *Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 24 de marzo de 2022.*
3. *Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 7 de abril de 2022*
4. *Contratación de la digitalización del Salón*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0008

### Kontratazioa

### de Sesiones

- |  |  |
|--|--|
| 5. Ordiziako Klimaren eta Energia Iraunkorraren Planaren erredakzioa egiteko kontratazioa  | 5. <i>Contratación para la realización de la redacción del Plan Climático y Energético Sostenible de Ordizia</i>   |
| 6. Oianguko taberna-txiringitoaren emakidaren kontratazioa   | 6. <i>Contratación de la concesión del bar-chiringuito de Oiangu</i>   |
| 7. Jakes etxeko irisgarritasuna bermatzeko lanen kontratazioa igogailua + komunak  | 7. <i>Contratación obras de accesibilidad en la casa Jaques (ascensor + aseos</i>  |
| 8. Ordiziako Udalaren eta Ordiziako jubilatu eta pentsiodunen Zuhazti Elkartearen arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenaren luzapena | 8. <i>Prórroga del convenio marco de colaboración entre el ayuntamiento de Ordizia y la Asociación Zuhazti de jubilados/as y pensionistas de Ordizia</i> |
| 9. Zenbait txosten eta eskaera.  | 9. <i>Informes y solicitudes varias.</i>   |
| 10. Galde-eskeak.  | 10. <i>Ruegos y preguntas.</i>   |

### **PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIK:**


### **GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIK:**

### **ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 13:00etan**

**AMAIERA ORDUA: 14:30etan**





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1 2022ko martxoaren 10eko ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.**

Proposamena

**2022ko martxoaren 10eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

**1.- Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 10 de marzo de 2022.**

Propuesta

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 10 de abril de 2022.***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jauna:

Alcalde:

Iñaki zuk zuzentzeko eskatu zenuen puntua zuzenduta dago. Bestalde, nik planteatzen nituen zalantzen inguruan, akta batean literalki jasota dago eta bestean laburbilduago. Erabaki behar dugu zein onartu.

*El punto en el que Iñaki solicitó la corrección ha sido corregido. Por otra parte, sobre las dudas que planteaba, se recoge literalmente en un acta y más resumidamente en otro. Hay que decidir cuál se acepta.*

Iñaki:

Iñaki:

Bidali biak eta erabakiko dut zein onartu. Nahiago dut aurretik irakurtzea.

*Envíame los dos y decido cuál aceptar. Prefiero leerlos antes.*

Beraz, aktak onartzea hurrengo saiorako uzten da.

*Por lo tanto, se pospone la aprobación de las actas a la siguiente sesión.*



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- 2022ko martxoaren 24ko ohiko bilkurako akta zirriborroa onartzea.**


Proposamena

**2022ko martxoaren 24ko ohiko bilkurako akta zirriborroa onartzea.**

**2.- Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 24 de marzo de 2022.**

Propuesta

***Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 24 de marzo de 2022.***



Eztabaida

Akten onarpena hurrengo saiorako uzten da. *Se pospone la aprobación de las actas a la siguiente sesión.*



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- 2022ko apirilaren 7ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

**3.- Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 7 de abril de 2022.**

Proposamena

Propuesta

**2022ko apirilaren 7ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

***Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 7 de abril de 2022.***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, inork ez du hitza eskatu.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak: 3 (EH-BILDU ORDIZIA 3)**

**Aurkakoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.-Batzar Aretoa digitalizatzeko Kontratazioa**


**4.- Contratación de la digitalización del Salón de Sesiones**

Proposamena

Propuesta

Ordiziako Udaleko Osoko Bilkuren Aretoan egiten diren osoko bilkurak, komisoiak eta bestelako ekitaldiak kudeatzeko, egiteko, kontrolatzeko, grabatzeko eta zabaltzeko sistema integral bat instalatzeko eta

*A la vista la necesidad de un suministro, instalación y configuración de un sistema integral de gestión, realización, control, grabación y difusión de plenos, cominiones y otras sesiones o eventos que se celebren en el Salón de Plenos del*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0008

konfiguratzeko beharra ikusi da.

*Ayuntamiento de Ordizia.*

Hori dela eta, osoko bilkurak kudeatzeko softwarea, bideo-grabazioa eta hitzaldi-sistema hornitzeko eta instalatzeko oinarri arautzaileak landu dira.

*Por ello, se han elaborado las bases reguladoras para el suministro e instalación de un sistema de conferencias, grabación en vídeo y software de gestión de plenos municipales.*

### AKORDIO PROIEKTUA

### PROYECTO DE ACUERDO

- Udal osoko bilkurak kudeatzeko hitzaldi, bideo grabazio eta software sistema bat hornitzeko eta instalatzeko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.

*- Aprobar las bases reguladoras y la convocatoria para el suministro e instalación de un sistema de conferencias, grabación en vídeo y software de gestión de plenos municipales.*

- Herri Administrazioen kontratuen adjudikaziorako lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

*- Publicar el anuncio de licitación para la adjudicación de los contratos de las Administraciones Públicas en el perfil de contratante.*

### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Alkate jauna:

#### Alcalde:

Mahaia aldatu behar da bideoakten sistema jartzeko eta baita audio sistema guzta ere. Oso gai teknikoak dira eta aurretiazko kontsultak egin ditugu balorazioa egiteko.

*Se debe cambiar la mesa para colocar el sistema de videoactas e incluso el sistema de audio. Se trata de temas muy técnicos y se han realizado consultas previas para su valoración.*

Bi kamara jarriko ditugu, bat frontala, dena jasoko duena eta bestea pertsona, hitz egitean direkzionatzen dena. Mikrofonoak pertsonari lotuta egongo dira eta ondoren transkripzioa jasoko du.

*Pondremos dos cámaras, una frontal, que recogerá todo y otra que se dirija hacia el público cuando éste hable. Los micrófonos estarán unidos a las personas y posteriormente recogerán la transcripción.*

Elhuyarrekin hitz egin dugu itzulpena jasotzeko, sub-tituluekin. Eta hortik akta aterako litzateke eta bideoa.


*Hemos hablado con Elhuyar para recibir la traducción con subtítulos. De ahí saldrían el acta y el vídeo.*

#### Iñaki

#### Iñaki

Nik gauza bat. Erdaraz bidaltzea

*Una cosa por mi parte. Agradecería que lo*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0008

eskertuko nuke.

*enviaran en castellano.*

### Maitane

### Maitane

Maite bakarrik dago eta urgentziatzko gauza bat izan delako ez dira bidali. Lan karga handiarekin dabil. Itzultzen direnean segituan bidaliko dizkizugu.

*Sólo está Maite y no se han enviado porque ha sido algo urgente. Está con gran carga de trabajo. Cuando se traduzcan, se remitirán inmediatamente.*

### Iñaki

### Iñaki

Bestalde, 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan berdintasun plana edukitzea eskatu beharko litzateke.

*Por otra parte, en las empresas de más de 50 trabajadores se debería solicitar un plan de igualdad.*

### Idazkaria

### La Secretaria

Eskakizun hori Sektore Publikoen Kontratuen Legeak bere 71.artikuluaren debeku gisa jasotzen du eta ondorioz legea, zuzenbide iturrien hierarkiari begira, pleguen gaintetik dagoenez, 71. Artikuluari erreferentzia egitearekin pleguetan eskakizun hori jaso dago. Alegia, debekatuta dugu halako enprekin kontratatzea.

*Esta exigencia se recoge como prohibición en el artículo 71 de la Ley de Contratos del Sector Público, por lo que la preeminencia de la ley sobre los pliegos respecto de la jerarquía de fuentes del derecho hace que la referencia al artículo 71 lo contemple en los pliegos. Es decir, tenemos prohibido contratar con este tipo de empresas.*

### Iñaki:

### Iñaki:

Ados. Bestalde, konpra etikoari dagokionean, zenbait etiketa egon ohi dira hori ziurtatzeko. Ondo egongo zen zenbait ziurtagiri eskatzea. 2019.urtean mozio bat onartu zen honi lotuta eta erabili behar dituzten materialak noiz eta nola egin dituzten egiaztatu beharko lukete.

*De acuerdo. En lo que se refiere a la compra ética, suele haber etiquetas que lo certifican. Estaría bien solicitar varios certificados. En 2019 se aprobó una moción en este sentido y se debería de comprobar cuándo y cómo se han elaborado los materiales que tienen que utilizar.*

### Maitane:


### Maitane:

Hitz egingo dut aparejadorearekin.

*Hablaré con el aparejador.*

## Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira



Ordiziako Udala

2022ITGB0008

**Aldekoak:** 5 (EH-BILDU ORDIZIA 3, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak/:**0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Ordiziako Klimaren eta Energia Iraunkorren Planaren erredakzioa egiteko kontratazioa**

**5.- Contratación para la realización de la redacción del Plan Climático y Energético Sostenible de Ordizia**

Proposamena


Propuesta

EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak dei egiten die Euskadiko tokiko erakunde guztiei energiaren erabilera jasangarri baten aldeko ekintzak egiteko eta hainbat betebeharrak ezartzen dizkie, horien artean energia jarduketan hainbat urterako plana egitea, kontsumo zein energia berriztagarriak bultzatzeko helburuak aintzat harturik. Aipatu Legeak erakunde bakoitzak bere energia-kontsumoa 2030 urterako %35 eta 2050 urterako %50 murrizteko helburua ezartzen du. Gainera, legeak ezartzen du 2030 urterako erakunde bakoitzak bere eraikinetan energia berriztagarrien nahikoa instalazio izan beharko dituela ezarrita erakunde horren energia kontsumoaren %32 gutxienez hornitu ahal izateko, bero-aprobatxamenduko sistemak edo elektrizitatea sortzekoak barne hartuz.

*La Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética de la CAV hace un llamamiento a todas las entidades locales de Euskadi para que emprendan acciones a favor de un uso sostenible de la energía y les impone una serie de obligaciones, entre ellas la elaboración de un plan plurianual de actuaciones energéticas, teniendo en cuenta los objetivos de consumo y fomento de las energías renovables. La citada Ley establece el objetivo de reducir el consumo energético de cada entidad en un 35% el año 2030 y en un 50% el año 2050. Además, la ley establece que para el año 2030 cada entidad deberá disponer en sus edificios de instalaciones de energía renovable suficientes para abastecer al menos el 32% del consumo energético de dicha entidad, incluyendo tanto sistemas de aprovechamiento térmico como de generación eléctrica.*

Honekin lerrokaturik, 2008. urtean eman zitzaion hasiera Europako Alkateen Itunari, udalek borondatez onartutako akordioen bidez Europak ezarritako klima eta energia alorreko helburuak bete eta hobetzeko. Itunaren sinatzaileak klima aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko

*Alineado con ello, en el año 2008 se dio inicio al Pacto de las Alcaldías de Europa para el cumplimiento y mejora de los objetivos climáticos y energéticos marcados por Europa, mediante acuerdos adoptados voluntariamente por los ayuntamientos. Los/las firmantes del Pacto*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0008

ikuspegi integratu bat hartzerak konprometitzen dira. Itunera atxiki direnetik lehenengo bi urteetan Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Plan bat prestatzeko eskatzen zaie. 2030rako CO<sub>2</sub> emisioak %40 murrizteko eta klima aldaketarekiko erresilientzia handitzeko helburuekin.

Testuinguru honetan beharrezkoa ikusten da Ordiziako Klimaren eta Energia iraunkoraren plana garatzea, klima aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko ikuspegi bateratu bat edukitzeko.

Aipatu aurrekariak aintzat hartuta, Ordiziako Klimaren eta Energia Iraunkoraren Planaren erredakzioa egiteko zerbitzua kontratatze beharra ikusten da Ingurumen Sailetik. Kontratuaren xedea izango da Ordiziako Klimaren eta Energia Iraunkoraren Planaren erredakzioa.

Ordiziako Klimaren eta Energia Iraunkoraren Planaren erredakzioa egiteko lanen irismena eta lantzen dituen arlo espezifikoak aintzat harturik, beraz egiteko lanak kanpoko aholkularitza bati kontratatzea komeni da, ezin delako bermatu aipatu plana egiteko prozesua (parte-hartzea barne) zein beraz osatuko duten dokumentuak behar den kalitate eta xehetasunarekin osatzeko aukera dagoela Ingurumen Saileko barne baliabideekin.

Hori dela eta, Idazkaritza Sailean planaren erredakzioa egiteko arautzeko oinarri arautzaileak prestatu dira.

### AKORDIO PROIEKTUA

- Ordiziako Klimaren eta Energia

*se comprometen a adoptar un enfoque común para el impulso de la mitigación y la adaptación al cambio climático. Se les pide que durante los dos primeros años desde su adhesión al Pacto elaboren un Plan de Acción por el Clima y la Energía Sostenible, con el objetivo de reducir las emisiones de CO<sub>2</sub> en un 40% para el 2030 y aumentar la resiliencia al cambio climático.*

*En este contexto, se considera necesario desarrollar el Plan de Clima y Energía Sostenible de Ordizia, con el objetivo de disponer de una visión conjunta para la mitigación y adaptación al cambio climático.*


*Considerando los antecedentes citados, el Área de Medio Ambiente considera necesario contratar el servicio para la elaboración del Plan de Clima y Energía Sostenible de Ordizia. El objeto del contrato consistirá en redactar el Plan de Clima y Energía Sostenible de Ordizia.*

*En vista del alcance de los trabajos de redacción del Plan de Clima y Energía Sostenible de Ordizia y los ámbitos específicos que trata, para su elaboración se considera conveniente contratar a una asesoría externa, dado que con los recursos internos del Área de Medio Ambiente no es posible garantizar que el proceso de elaboración del plan (incluido el apartado de participación) y la conformación de los distintos documentos que la componen se pueda realizar con la calidad y precisión necesarias.*

*Por ello, se han elaborado las bases reguladoras para la redacción del plan en el Departamento de Secretaría.*

### PROYECTO DE ACUERDO

- Aprobación de las bases reguladoras y la



## Ordiziako Udala

2022ITGB0008

Iraunkorraren Planaren erredakzioa egiteko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. *convocatoria para la redacción del Plan de Clima y Energía Sostenible de Ordizia.*

- Oinarriak eta deialdia kontratzailearen profilar argitaratzea dagokion hautaketa prozesua abiatzeko. *- Publicar las bases y la convocatoria en el perfil del contratante para iniciar el correspondiente proceso selectivo.*

### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Maitane:

Energia plana eguneratu behar zen izan ere aurrekoak jada 5 urte iraun ditu. Oro har, lizitazio hauetara bi enpresa bateratuta aurkezten dira, objektuari aurre egiteko. Enpresa hauek monitarizazioa ere eskaintzen dute sistemaren analisia eskaintzeko.

#### Maitane:

*Debía actualizarse el plan de energía ya que el anterior tiene 5 años. En general, a estas licitaciones se presentan dos empresas unificadas para hacer frente al objeto. Estas empresas ofrecen también monitorización para ofrecer un análisis del sistema.*

Beasainen orain dela gutxi atera dituzte pleguak eta irabazi duen enpresak bere monitarizazioa planteatu du.

*En Beasain han sacado hace poco los pliegos y la empresa ganadora ha planteado su monitorización.*

Guk ordea jada sistema hori badaukagu eta ondorioz aurkezten den enpresak sistema hori erabili beharko du.

*Nosotros, sin embargo, ya disponemos de este sistema, y por tanto, la empresa que se presente deberá utilizar dicho sistema.*

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira


**Aldekoak:** 5 (EH-BILDU ORDIZIA 3, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak/:**0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**





Ordiziako Udala

2022ITGB0008

**6.- Oianguko taberna-txiringitoaren emakidaren kontratazioa**

**6.- Contratación de la concesión del bar-chiringuito de Oiangu**

Proposamena

Propuesta

Emakida honen xedea Oiangu parkeko udako taberna txikia edo txiringittoa eta komun zerbitzua udan (ekaina-uztaila-abuztua-iraila-urria) ustiatzea da.

*El objeto de esta concesión es la explotación en verano (junio-julio-agosto-septiembre-octubre) del bar pequeño de verano o chiringuito y servicio de aseos del parque Oiangu.*

Emakidaren epea 2022ko ekainaren 3tik 2022ko urriaren 2 arte (biak barne) izango da, baldintza teknikoen agiriko I. Eranskinean ageri den egutegiaren arabera.

*El plazo de la concesión será del 3 de junio de 2022 al 2 de octubre de 2022, ambos inclusive, según el calendario que figura en el Anexo I del pliego de prescripciones técnicas.*

Emakidaren bestelako baldintzak Plegu tekniko eta administratiboetan jasota daude.

*Las condiciones de la concesión se recogen en los Pliegos Técnicos y Administrativos.*

**PROPOSATZEN dut:**

**PROPONGO:**

**Aurreko guztia kontuan izanda espediente honi onespena ematea.**

***De conformidad con todo lo anterior, aprobar el presente expediente.***

Eztabaida

Alkate Jauna:

Alcalde:

Aurreko urteetan beste modu batean egin da eta aurten emakida zerbitzu gisa aterako da. Bestalde, bainugeletako gastuak ere euren kontura izango direla jaso da.

*En años anteriores se ha hecho de otra manera y este año saldrá la concesión como servicio. Por otra parte, se recoge que los gastos de los baños serán también de su cuenta.*

Bozketa


Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak:** 5 (EH-BILDU ORDIZIA 3, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



**7.- Jakes etxeko irisgarritasuna bermatzeko lanen kontratazioa igogailua + komunak**

**7.- Contratación obras de accesibilidad en la casa Jaques (ascensor + aseos)**

Proposamena

Propuesta

Ordiziako Udaleko Ongizate zentroko (Jakes eraikineko), erabiltzaileen irisgarritasuna bermatu ahal izateko igogailu eta bainugela irisgarri bat eraikitze beharra ikusten dela ikusirik, egokia deritzogu oinarri arautzaileak onartzea eta obra kontratuaren deialdia onartzea.

*A la vista la falta de accesibilidad en el Centro de Bienestar Social del Ayuntamiento de Ordizia (Edificio Jakes), se observa la necesidad de construir un ascensor y baño nuevo para garantizar la accesibilidad de los usuarios, y consideramos oportuno aprobar las bases reguladoras y la convocatoria del contrato de obras.*

Helburua igogailu bat egitea eta komun irisgarri bat eraikitzea da, Gizarte Ongizateko eraikinean (Jakes) irisgarritasuna bermatzeko. Eraikinak ez du igogailurik, ez bainugela irisgarririk.

*El objetivo es la ejecución de un ascensor, y construcción de baño accesible que garantice la accesibilidad en el edificio de Bienestar Social (Jakes). El edificio no consta de ascensor, ni baño accesible.*

Hori dela eta, Hirigintza saileko obra kontratua arautzeko plegu teknikoak prestatu dira.

*Por ello, se han elaborado los pliegos técnicos que regulan el contrato de obras del departamento de Urbanismo.*

Kontuan hartuta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena, honako hau egiten da,

*Teniendo en cuenta la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 se realiza el siguiente,*

**AKORDIO PROIEKTUA**

**PROYECTO DE ACUERDO**

- Obra kontratua eratzeko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.


*- Aprobar las bases reguladoras y la convocatoria para el contrato de obras.*

- Herri Administrazioen kontratuen adjudikaziorako lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

*- Publicar el anuncio de licitación para la adjudicación de los contratos de las Administraciones Públicas en el perfil de contratante.*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labor-labor zerrendatzen direnak



izan dira:

Alkate jauna:

Proiektua jada eginda dago eta igogailua jarri behar da. Irisgarritasun baldintzak betetzen ditu. Bestalde, behin igogailua jartzen denean, ongizatekoak nola kokatzen diren erabaki beharko da izan ere ez dute bilera gelarik eta denek beheko plantan egon nahi dute.

Alcalde:

*El proyecto ya se ha realizado y hay que instalar el ascensor. Cumple las condiciones de accesibilidad. Por otra parte, una vez instalado el ascensor, habrá que decidir cómo se ubican los trabajadores de bienestar porque no tienen sala de reuniones y todas quieren estar en la planta baja.*

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak:** 5 (EH-BILDU ORDIZIA 3, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



**8.- Ordiziako Udalaren eta Ordiziako jubilatuen eta pentsiodunen Zuhazti Elkartearen arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenaren luzapena**

**8.- Prórroga del convenio marco de colaboración entre el ayuntamiento de Ordizia y la Asociación Zuhazti de jubilados/as y pensionistas de >Ordizia**

#### Proposamena


#### Propuesta

Ordiziako Jubilatuen eta pentsiodunen ZUHAIZTI elkarte (G20156634 NIFa duena), Ordiziako Udalarekin lankidetzan, 1987az geroztik "Jubilatuena Etxea" (Zuhazti Zentroa) kudeatzeaz arduratzen da, bi erakundeek adostutako hitzarmen progresiboen bidez.

*La asociación Zuhazti de Jubilados/as y pensionistas de Ordizia (con CIF: G20156634) en colaboración con el Ayuntamiento de Ordizia se encarga desde 1987 de la gestión del "Hogar del jubilado/a" (Centro Zuhazti), mediante progresivos convenios acordados por ambas instituciones.*

Ordiziako Udalaren helburuetako bat da zahartze aktiboa sustatzea, Zuhazti zentroa baliabide egokia izanik helburu horren sustapenerako (1150 bazkide ditu).

*Uno de los objetivos del Ayuntamiento de Ordizia es promover el envejecimiento activo, siendo el centro Zuhazti un recurso adecuado para su impulso (cuenta con 1150 socios/as).*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0008

Ordiziako Jubilatuen eta Pentsiodunen Zuhaizti Elkarteak hitzarmen hau urtebetez luzatzeko eskatu du (epe barruan). Hitzarmenaren 10.2 artikulua ezartzen du bi alderdiek hala adostuz gero luzatu ahal izango dela, gehienez ere lau urterako.

Zerga-betebeharrak betetzen ditu eta eguneratuta dago Gizarte Segurantzari. Eskatutako justifikazioak epearen barruan aurkezten ditu.

Kontu-hartzailearen txostena aldekoa da, 2022an onartutako aurrekontuen arabera.

Txosten juridikoak ondorioztatzen du hitzarmena egiteko baldintza juridiko guztiak eta bertan eskatzen den interesa publikoaren justifikazioa betetzen direla.

*La Asociación Zuhaizti de jubilados/as y pensionistas de Ordizia solicita (en plazo) la prórroga por un año del actual convenio. El artículo 10.2 de convenio establece que podrá prorrogarse por acuerdo de ambas partes por un plazo máximo de cuatro años.*

*Cumple con sus obligaciones tributarias y se encuentra al día en la seguridad social. Presenta en plazo las justificaciones requeridas.*

*El informe de intervención es favorable, según los presupuestos aprobados en 2022.*

*El informe jurídico concluye que se cumplen todas las condiciones jurídicas para la celebración del convenio y la justificación del interés público exigido en el mismo.*

### AKORDIO PROPOSAMENA:

**Lehenengoa.-** Ordiziako Udalaren eta Ordiziako jubilatuen eta pentsiodunen Zuhaizti Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena urtebetez luzatzea onestea.

**Bigarrena.-** Alkateari eskumena ematea Ordiziako Udalaren izenean hitzarmenaren luzapena sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Sinatzen den hitzarmenaren luzapena argitaratzea Ordiziako egoitza elektronikoan 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoaren 5.4 eta 8.1b) artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

### PROYECTO DE ACUERDO:


**Primero.-** Aprobar la prórroga de un año del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Ordizia y la Asociación Zuhaizti de jubilados/as y pensionistas de Ordizia.

**Segundo.-** Facultar al Alcalde para firmar la prórroga del convenio en nombre del Ayuntamiento de Ordizia.

**Tercero.-** Publicar el acuerdo de la prórroga del convenio en la sede electrónica del Ayuntamiento de Ordizia, de acuerdo con los artículos 5.4 y 8.1 b) de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:



**Ordiziako Udala**

2022ITGB0008

Alkate jauna:

Alcalde:

Urte betez luzatuko da eta ondoren aztertu behar da nola planteatzen den, mantenimendu gastuak etab. kontrol zorrotzagoa eramateko.

*Se prolongará durante un año y posteriormente habrá que analizar cómo se plantean, gastos de mantenimiento, etc. para un control más exhaustivo.*

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak:** 5 (EH-BILDU ORDIZIA 3, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak/:**0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



#### **9.- Zenbait txosten eta eskaera**

#### **9.- Informes y solicitudes varias.**

Ez da izan.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

#### **10.- Galde-erreguak**

#### **10.- Ruegos y preguntas.**


Ez da izan.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.*

<b>Sinatzaileak</b> Firmantes	<b>ALKATEAK / EL ALCALDE</b> Adur Ezenarro Agirre <b>IDAZKARIA / LA SECRETARIA</b> Ainhoa Esnaola Zubeldia
	<b>Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:</b> / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAD8LXM.sn2o">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAD8LXM.sn2o</a>



**Ordiziako Udala**

2022ITGB0008